

OSTEGUNEAN EGINDAKO IRAGARPENA. 2018ko ABENDUAREN 13a. 18:30.

OSTEGUNA (2018/12/13)

Zerua oso hodeitsu egongo da. Zaparrada txiki-ertainak botako ditu, sarriago eta ugariago kantauri isurialdean. Elur-kota 1300-1500 m inguruan egongo da. Mendebal/ipar-mendebaldeko haize bizia ibiliko da, bolada gogorrekin eta oso gogorrekin, bereziki kostaldean eta Ebro Ibarrean.

Temperaturak (°C)	
<i>Maximoa</i>	
Donostia	14
Bilbao	14
Gasteiz	10
Arrasate	13

OSTIRALA (2018/12/14)

Zerua hodeitsu edo oso hodeitsu egongo da, bereziki egunaren lehen partean eta kantauri isurialdean; gauean hodeiak gutxitu egingo dira. Prezipitazio txikia egingo du, kantauri isurialdeko zenbait tokitan ertaina; gauean atertzera egingo du mendebaldetik ekialdera. Goizaldean elur-kota 1300-1500 m inguruan egongo da eta goizean igotzen joango da. Mendebal/ipar-mendebaldeko haize ahul-bizia ibiliko da, haizeguneetan bolada gogorrekin eta oso gogorrekin; arratsalde-gauean indarra galduko du eta hego-osagaitik finkatzen joango da. Tenperaturari, aldaketarik ez.

Temperaturak (°C)		
<i>Minimoa</i> <i>Maximoa</i>		
Donostia	7	13
Bilbao	8	14
Gasteiz	3	10
Arrasate	5	12

LARUNBATA (2018/12/15)

Zerua hodeitsu egongo da, tarteka oso hodeitsu batez ere goizean eta gauean. Goizean baliteke prezipitazio txikia egitea. Egunaren amaieran euri txikia egingo du. Hego-osagaiko haize bizia ibiliko da, bolada gogorrekin, eta arratsalde-gauean oso gogorrekin haizeguneetan. Temperatura minimoak gutxi jaitsiko dira eta maximoak nahikoa igoko dira, bereziki kantauri isurialdean.

IGANDEA (2018/12/16)

Zerua hodeitsu edo oso hodeitsu egongo da. Prezipitazio txikia egingo du, zenbait lekutan ertaina, sarriago kantauri isurialdean eta egunaren lehen zatian. Bigarren zatian kantauri isurialdean noizbehinka prezipitazio txikia egingo. Elur-kota 1300-1500 m inguruan egongo da gauean. Mendebal-osagaiko haize ahul-bizia ibiliko da, haizeguneetan bolada gogor batzuekin. Temperatura minimoak gutxi edo nahikoa igoko dira eta maximoak gutxi jaitsiko dira.